

BIGARREN LABURPENA

Landutako irakurgai honek Gabriel Aresti idazle Bilbotarra eta euskara ditu protagonista. XX.mendearen bizitako euskaltzale eta literaturgile ereduak izan zen Aresti. Etxean gaztelera zuen nagusi, eta honenbestez ama-hizkuntza¹ amaren sabelean gaudenetik entzuten dugun hizkuntzat jotzen badugu, Arestirena gaztelera zela esan genezake. Baina gure errealitatearen parte da idazle hau bezalako beste hainbeste euskaldunek testuaren autore den Itziar Lakak dioen moduan “jaio eta urte askotara bilakatu dute(la) euskara beren ama hizkuntza”. Hizkuntza honen aldeko aktibistatzat ere pasa da historiara Gabriel Aresti; ohiko hizkuntza ereduak aldatu nahian eta euskararekiko jakinminaren fruitu gisara, hamabi urterekin eskuliburu baten laguntzaz autodidakta moduan ikasteari ekin zion.

Mende erdialde hartan, euskararen egoera gaur egun ezagutzen dugunarekiko oso bestelakoa zen; batetik, hizkuntzaren beraren egoera larria zelako, hiztun konpuru eskasa eta sustapen falta medio; bestetik, garbizaletasunak itsututa beren burua euskararen salbatzaile izendatzen zutenek, hizkuntza purifikatua eta “zuzena” nahi zutelako. Prestigioa ez izateak euskarazko azalpenak gazteleraz ematea ekar zezakeen, besteak beste, prestigiodun hizkuntza izateko gardena eta txukuna izan behar zuela pentsatzen zutelako, eta dutelako batzuk oraindik ere. Testuinguru horretan ikasi zuen euskara Arestik. Honek, ordea, euskara garbia edo eskuliburuetakoa ikasi zuela esan genezake, etxeko euskararekiko oso ere desberdina baitzen. Elkarrengandik oso aldenduak zeuden bata eta bestea, lehenak gramatika logiko eta erregularra mantendu nahi zuelako, eta bigarrenak ahozketasunaren bat-batekotasuna eta tokian tokiko hizkeren berezitasunak zituelako. Horregatik, askotan euskaldunen artean elkar ez ulertu izanagatik, komunikazio tresnatzat gaztelera erabiltzeko joera zabaldu zen.

Autorearen ustetan gure gizarteko kideok jakitun gara Euskal Herrian bizi dugun heterogeneotasunaz hizkuntzari dagokionean; Pirineoen alde banatan hizkuntza hegemoniko handi, indartsu eta ofizial bana dugu, batean gaztelera eta bestean frantsesa. Lurralde osoan da derrigorra herrialde bakoitzari dagokion hizkuntza ofizial hori nahitaez ikastea, eta askok euskara ere badakite, honenbestez gizartean ematen den hizkuntzekiko ezagutza aldatzen da pertsonaren eta inguruko ohituren arabera. Horrela iritsi dira heldu gehienak elebidun behartuak izatera.

Gizarte mota honetan bizitzeak elebitasunaren inguruko ikerketara bideratu ditu Unibertsitateko irakasle batzuk. Egin diren ikerketetan batez ere duela gutxi arte egindako adierazpenen egiazkotasuna ezeztatzea zen helburua, hau da, Lakak testuan dioen moduan “elebitasuna garapen kognitiboan oztopo zela” esatetik elebitasunaren abantailak argitzera. Autoreak testuan esaten duen moduan, ikerkuntza hauek guztiek eta egingo direnek “eragin esanguratsuak izan ditzake(te) hizkuntza eta hezkuntza politikan”. Gainera, gure hizkuntza egoera dena izanik, punta-puntako ikerketaren parte izatean interesa izan beharko genukeela dio, gure hizkuntza praktikek nola

¹ “Mother tongue: the first language that you learn when you are a baby, rather than a language learned at school or as an adult.” (Cambridge Dictionary) in <https://dictionary.cambridge.org/es/diccionario/ingles/mother-tongue>

funtzionatzen duten uler dezagun. Garunean hizkuntzak bezalako mekanismoak gobernatu behar izateak, antza, gaitasun batzuk trebatzen baitizkigu, adibidez Alzheimerraren kasuan egin diren ikerketa batzuen arabera, hiztun elebidunengan sintomak bost urte berandutzen omen dira.

Hizkuntza erabiltzea erraza suertatzen zaigu antza, baina garunean hizkuntza maneiatzeko erabiltzen diren mekanismoak aldiz oso konplexuak dira; eta honenbestez elebidunen kasuan are gaitzago suertatzen da, hitz bakoitza zein hizkuntzatakoa den identifikatu beharra baitauka. Egin izan diren hainbat ikerketen erantzunen arabera ondorio batzuk azaltzen dizkigu Lakak. Bartzelonako Pompeu Fabra unibertsitatean² elebidunekin egindako ikerketa lan bati ematen dio batez ere garrantzia, bertan aurkitzen baita hizkuntza batetik bestera aldatzerako garaian garunak egiten duen lana denboran zehar, milisekundutan neurtuta. Ikerketa honek agerian uzten du elebakarren, elebidun asimetrikoen (bi hizkuntzak maila berean ulertzen ez dituzten baina elebidunak diren hiztunak) eta elebidun simetrikoen (bi hizkuntzak gaitasun berarekin erabiltzen dituztenak) artean aldeak egon badaudela.

Hizkuntza bat erabiltzean, hizkuntza guztien ezagutza martxan jartzen dela jakitea garrantzitsua da ikertzaile talde honek ateratako hurrengo ondorioak ulertzeko. Pertsona elebakarrek H1³etik H2ra igarotzeko behar duten denbora hizkuntzarekiko duten gaitasunaren arabera da, hau da, zenbat eta H2 hobeto dominatu orduan eta denbora gutxiago beharko dute batetik bestera igarotzeko. Elebidun asimetrikoek denbora gehiago behar izaten dute H2tik H1era igarotzeko alderantziz baino, eta are gehiago oraindik H3tik H1era igarotzeko. Elebidun simetrikoek aldiz denbora (beti ere milisekundutan neurtuta) bera behar dute H1etik H2ra igarotzeko eta baita alderantzizko bidea egiteko ere, baina harritzekoa dena da H2tik H1era igarotzeko behar duten denbora ere H3tik H1era igarotzeko behar dutenaren berbera dela. Honek guztiak azaltzen du, elebidun simetrikoek hizkuntzaren egitura kudeatzeko beharrezkoa den eta gainontzeko animaliongandik desberdintzen gaituen Broca eremuan zehar, hizkuntza bateko mekanismoetatik bestera pasatzeko dugun abilezia eta azkartasuna garatuago daudela, eta horren ondo ezagutzen ez ditugun gainontzeko hizkuntzetan ere abilezia berarekin erabiltzen dugula.

Esan dezagun hizkuntzaren etxea edo gordelekua burmuinean dagoela. 1967an Eric Lennenberg biologoak hizkuntza garapenak beste funtzio biologiko batzuen antzera barneratua izateko denbora muga bat duela adierazi zuen. Honenbestez, haurtzaroan hizkuntza barneratu ez duen gizabanakoak ezingo du inoiz garatu. Baina orduan, ikasten ditugun lehen, bigarren nahiz hirugarren hizkuntzak ikasteko prozesua bera al da? Galdera honen erantzuna oraindik ere aztergai dagoela adierazten du Lakak.

Gabriel Arestiren eredura itzuliz, azken urteotan euskara ikasteak suposa ditzakeen zailtasunez ikertzen ibili dira ikertzaileak. Adibide gisan gure gizartean txikitatik barneratu ditugun gaztelera eta euskararen arteko ikasketa prozesuan atzeman litezken aldeak ikertu nahi izan dituzte Lakak eta bere ikerketa taldeko kideek (Zawiszewski, A., Gutiérrez, E., Fernández, B. eta Laka, I.) 2011an egindako lan batean. Bi hizkuntza hauen arteko alde nabaria kasu sistema da: batek nominatibo-akusatiboa darabilen bitartean, besteak ergatiboa. Azken hau omen da ikerketa taldeak egindako

² Pompeu fabran egindako ikerketako subjektuak ingeles-gaztelera, katalan-gaztelera eta euskara-gaztelera elebidunak ziren.

³ H1: lehen hizkuntza, H2: bigarren hizkuntza, H3: hirugarren hizkuntza

lanaren arabera barneratzen kasu zailena, ez bakarrik euskara haurtzaroan ikasi ez duten hiztunen kasuan, baita lau urterekin euskaratuak izan direnetan ere.

Aurretik esan bezala, hiztun elebidun, eta baita eleaniztunek, barneratuak dauzkaten hizkuntzak aktibo dauzkate hauen erabilera beharrezkoa den kasu guztietan, eta hizkuntza bat edo beste aukeratzeko dute egoeraren beharren arabera.

Egunerokotasunean kaletik goazela, denda batean sartzean edota begiek hizkuntzarekin topo egiten duten beste hainbat kasuetan, elebidun desorekatuen eta orekatuen burmuinetan ematen diren prozesuak ez dira berdintsuak. Elebidun desorekatuek beren garunaren gidari den hizkuntza gobernaria aktibo utzi eta bestea alboratzen dute. Benetan garunak prozesatuko duen informazioa bigarren hizkuntza honetan izatea nahi badu, berebiziko esfortzua egin beharko du aktibatu eta hizkuntza gobernaria aktibatzeko. Kontzientzia hori geroz eta gehiago zabaldu da euskal gizartean, baina esan genezake gaur egungo erronka nagusia Lakaren arabera euskararen erabilera sustatzea dela.

Bibliografia:

Cambridge Dictionary (Ed.). (2020). *Mother tongue*.
<https://dictionary.cambridge.org/es/diccionario/ingles/mother-tongue> web orrialdean kontsultatua.

Laka I (2014) Gabriel Arestiren buruan: euskara ikasteaz eta elebitasunaz. In Harri eta Herri 50 urte. Forum Hitzaldiak 07, Bilbo: Bilbo Zaharra Liburuak, 26-39.